

Animalia xeheen taula

Ikaslearen fitxa

Oihaneko animalia xeheen betekizuna eta elikadura

Sailkapena	Animaliaren izena	Elikadura erregimena	betekizuna
Belarjale deskonposatzaileak	zoko zorria	Deskonposatzen ari diren hostoak.	Deskonposatzaileek hostoak desegiten dituzte humus bilakaraziz. Humus hori, landareek eta zuhaitzek elikatzeko baliatzen dute.
	glomerisoa	Belar estaiko hostoak.	
	oihaneko barraskilloa	Landare puskak, hosto idortuak.	
	oihaneko kilkerra	Likenak, onddoak, egur ustela.	Zizareak lur gaineko edo lurpeko landare puskak irensten ditu eta deskonposaketa lana amaitzen. Lurzorua aireztatzen du zilo eta galeria franko eginez. Horrela euri isurkia aiseago sartzen da lurzortuan.
	oihaneko barea	Lurpean edo lur gaineko landare puskak.	
	zizarea	Egurra	
	kaprikornio handia	Hostoak eta ornogabeen gorpuzkinak.	Zuhaitz zaharren ahulzera eta ustelazaztera lehiatzen da. Oihanaren garbitzailea da. Iulak lurzorua orbeletatik eta gorpuzkinetatik garbitzen du. Gorpuzkinen deskonposaketan eta humusaren egiten parte hartzen du.
Lehen mailako harrapari haragijaleak eta orojaleak	lula	Hostoak eta ornogabeen gorpuzkinak.	Intsektu jale guziki bezala, karaboei intsektuen ugalketa trabatzen dute. Zizareen eta moluskuen kopurua ere berdin mugatzen du.
	armiarma	Intsektuak eta haten larbak, ehunzangoak.	
	karaboa	Moluskuak, zizareak, intsektuak.	
	llobloa	Intsektuak, zizareak, ehunzangoak.	Landareetako zorriak desegiten ditu.
	marigorria	Landare-zorriak.	
	igel zalua	Intsektu desberdinak.	
	harrullia	Intsektuak, armiarnak, zizareak, bareak ...	Ustezko eskorpioia bizidun xeheen harraparia da.
	ustezko eskorpioia	Akaroak et lurzoruko mikrofauna.	
	uzkinaxoa	Ezkurak, gaztainak, beste xorien arroltzeak ...	
	basasagua	Ezkurak, gaztainak, hurrak ... bai eta beste intsektu batzuk.	Intsektuak ehizatzen dituzte eta zorriak aldez bazten, onddoak laguntzen. Nahiz eta intsektu baliagarrien jale izan, zuhaitzen lagunak dira bizkarkinei eramaten dieten guduak.
2. mailako haragijaleak : super haragijaleak	xinaurria	Intsektuak, zorrien kaka, bihiak, onddoak.	
	urubi arrunta	Karraskari xeheak (basasaguak, satitsuak ...)	Karraskari xeheen ugalketa trabatzen dute.
	azeria	Orojalea : karraskari xeheak, xoriak, untziak, intsektuak, zizareak, ezkurak ...	

Izena :


Eguna

Bizidun tipiak

Bizidun tipiak nola bil

1 landare porroxka anitz duen oihaneko lekua hauta ezazu.

2 Lurzoruko animalia larrienak bil.



■ Lurzorua artoski induska ezazu : hostopea, txotxabarrak, goroldioa eta egur ustelduan ongi mia.

■ Animalia tipi batzuk ikusi dituzu ihes egiten. Eskuz edo pintxeta fin batzuekin aise bilduko dituzu. Mamutxa horiei minik ez egin otoi, geroxeago libratu beharko baitituzu.

■ Bildu duzuna zilokatua den ontzi garden baten barnean eman ezazu.

■ Animalia tipi hauen harat-honatei artoski beha eta emana zaizun eredua baliatuz, bakoitzarentzat ezaugarri-fitxa bat bete ezazu.


3 Lurzoruan eta humusean beste bizidun batzuk oraino gelditzen dira.
Hauen biltzeko nola egin ?

■ Ontzi baten gainean iragazkia pausa ezazu eta honen barnean ezar ahurretara bat miatu ez duzun humusa.

■ Iragazkiari buruz argi-iturri bat ezarrazu.

■ Argi-iturria pizturik atxik zenbait denboraz eta ikusiko duzu berotasunari eta argiari ihes egiten dietela intsektuek. Denak bokalaren zolan aurkituko dituzu.

■ Lupa batekin animalia tipi havei ongi behatuko diezu eta identifikatuko dituzu ezaugarri-fitxari esker.



4 Oihanera itzul zaitez eta animalia tipi guztiak berriz libra itzazu atzeman zenituen lekuan. Hasia zuten deskonposaketa lana segitzen ahalko dute.

Izena :		Eguna

Ezaugarri-fitxa

Lurzoruko bizidun xeheak. Ezaugarri-fitxa

Noiz harrapatua :

Non harrapatua :

Zure izena :

Eskola :

Harrapatu duzun animaliaaren marrazkia egizu.

Animalia hau :

- ☐ hegaldatzen da.
☐ jauzika ibiltzen da.
☐ zangoz ibiltzen da.
☐ lerratzen da.
☐ herrestaka ibiltzen da.

Animalia hau harrapatua izan da :

- ☐ hostoen gainean ☐ hostopean
☐ egur ustelean ☐ goroldioan
☐ egur azpian ☐ lur pean
☐ beste leku batean :

Animaliaaren parteak ozka itzazu.

- ☐ oinak ☐ hegalak
☐ antenak ☐ matrailhezurrak
☐ begiak

Oinen kopurua ozka ezazu

- ☐ 0
☐ 4
☐ 6
☐ 8
☐ 10 edo gehiago

Animalia hau talde honetakoa da :

- ☐ intsektuak ☐ krustazeoak ☐ anfibioak ☐ zizareak
☐ armiarmak ☐ moluskuak ☐ miriapodoak ☐ beste :

Harrapatu duzun animaliaaren izena :

Oharrak :

Izena :		Eguna

11/4	Titulua : Biziaren zikloa oihanean	Helburua : jakintasuna :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
------	--	-----------------------------	---------------------------------	--------------------------------------

Marrazki honetan, “honek hori jaten du” gezia baliatuz, hiru kate-begi elkar lot itzazu. Kasu, hautua egin behar duzu animalia eta landare guztien artean.



Elikakate bakoitza hiruzpalau kate-begiz osatua da. Kate hauek beheko taularen laguntzarekin osa itzazu hutsuneak betez. Geziak “jaten du” erranahia dauka.

urubia	→		→	beldarra	→	
	→	satorra	→		→	
	→		→	zokozorria	→	egur ustela


Animaliaren izena	beldarra	zizarea	kaskabeltza	satorra	harrulia	zokozorria	azkona	armiarma	urubia
Elikadura mota	hostoak	ihaurgaia	beldarrak	zizareak	intsektuak armiarmak zizareak	egur ustela	satorrak	intsektuak	xori ttipiak

Izena :	Ilkas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

11/5	Titulua : Biziaren zikloa oihanean	Helburua : jakintasuna :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
------	--	-----------------------------	---------------------------------	--------------------------------------

Oihaneko piramide ekologikoa

Piramide honen estai bakoitzari izena emaziozu hutsuneetan idatziz.
 belarjaleak – landareak – haragijaleak



Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

Belarjale, haragijale, orojale...

Hiztegiaren laguntzarekin hitz bakoitzari definizioa emaitzazu.

Haragijale :

Belarjale :




Orojale :

Harrapari :

Harrapakin :

Animalia hauek hola ingura itzazu :

- berdez belarjaleak
- gorriz haragijaleak
- urdinez orojaleak



Hutsuneak betez elikakate hau osa ezazu. Geziaren erranahia : "jan du"






landarea

Zer gertatuko litzateke kutsadurarengatik oihan bateko basasagu guztiak desagertzen balira ?

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

Bakoitzak bere lana oihanean...**Gaineko irudiari begiratu ezazu erranaldiak osa itzazu.**

Deskonposatzaileak deitzen diren animalia xeheek landare porroxketatik eta beste bizidun batzuen ongarrietatik zuhaitzen egiten dute.

Zuhaitzek, eguzkiaren argia eta -an aurkitzen den gas karbonikoa janari bezala baliatzen dute.


Erroei esker, zuhaitzek lurpeko edaten dute.

ura – aire – elikadura

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

Zer lan lurzoruan !

Marraskia osa ezazu hitz hauek baliatuz : humusa / ihaurgaia / harria



Esperientzia egin

Ontzi garden batean, harri koxkor andana bat ezar ezazu, lastoa emazu gainetik eta humusa ; ondotik berriz lastoa, hosto ubel eta txotxabar batzuk.

Ontzian zizare zenbait ezar itzazu eta dena leku itzal eta freskoan pausa.

Egunero begira ezazu eta ikus bereziki zer lan egin duten zizareek. Bizpahiru asteren buruan ikusten duzunaren berri emazu.

Ikusi duzunaren berri emazu idatziz :

.....

Zer dira esperientzia honen ondorioak :

.....

Izena :	Ikas neurria			Norekin eginga			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	